

Eta tolosan zer

Erosketak egiteko ditugun ohiturak aztertuta, argi dago hainbat aldaketa egin behar ditugula. Tolosan dauzkagun aukerak aprobetxatu behar ditugu eta larunbatero egiten den azokan erosketak egiten baditugu, bertako eta garaiko produktuak kontsumituko ditugu. Produktu ekologikoen aukera ere gero eta zabalagoa da gure saltokietan eta martxan jarri den kontsumo taldeetan parte hartzen badugu, elikatzeko ohitura osasuntsuak berreskuratuko ditugu eta, bide batez, ingurumenari lagunduko diogu eta baserri munduari azken urteotan hain beharrezkoa duen bultzada emango diogu.



Merkatu eta feriak Tolosan

Tolosa, Nafarroatik, Frantziatik eta Gaztelatik zetozen bidaiariaren nahitaezko pasalekua izan denez, merkataritzak garrantzi handia izan du, eta horren adierazgarri dira herriaren antolatzen diren azokak. Azoka honetan zehazten ziren beste azoketako prezioak.

URTEKO LARUNBAT GUZTIAN:

- Zerkausan: bertako produktuak.
- Euskal Herria plaza: kanpoko produktuak.
- Berdura plaza: landareak.

Astero inguruko baserriaren produktuak herrian erosteko dugun aukera paregabea aprobetxatu behar dugu



ETA URTEAN ZEHAR:

- Otsaila: Zuhaitz eguna.** Zuhaitzen erakusketa eta salmenta.
- Maiatza/ Ekaina: Tolosa Berdez.** Lore eta landare erakusketa eta salmenta.
- Ekaina: San Joanetako azoka.** Produktuen erakusketa eta salmenta.
- Urria: Tolosa Goxua.** Gozogintzako artisauen azoka berezia. Erakusketa eta salmenta.
- Azaroa: Babarrunaren astea.** Tolosako Babarrunaren Produktoreen lehiaketa eta azoka berezia. Babarrunei lotutako produktuen erakusketa eta salmenta.
- Abendua: Gabonetako azoka.** Produktuen erakusketa eta salmenta. Odolki lehiaketa.

Kontsumo taldeak

Kontsumo taldeak nekazaritza produktu jakin batzuk gertuko baserri bati zuzenean erosteko osatutako taldeak dira. Baserriarrak astero bere produktuekin osatutako otarra prestatzen dio kontsumitzaile bakoitzari, eta hauetako bakoitzak hilean behin kuota bat ordaintzen dio baserriarri. Otarra osatzen duten produktuen kantitatea ordaintzen den kuotaren arabera da izan ohi da eta kuota, taldeko kontsumitzaile guztientzat, hileroko berdina da.

TOLOSAKO TALDEA:

Taldea 21 kidek osatzen dute eta astelehenero jasotzen dituzte otarreak, Tolosako Zerkausan, 19:00etan. Bilerak hilean behin egiten dira, gaiak aztertzeko eta ekintzak prestatzeko. Kontakua: tolosako@gmail.com

Tolosaldeko III. Topaketak

Eskolako Agenda 21 proiektuari bultzada handi bat emateko asmoz antolatzen da topaketa hau. Hezkuntza proiektu honetan, 13 herritako 22 ikastetxeren inplikazioa lortu da, eta gaur egun 6.964 ikaslek, 200 baino gehiago irakaslek eta ehunka gurasok parte hartzen dute.

Eskola desberdinetako partaideek elkartuta, esperientziak trukatu dira, eta aurtengoa hirugarren edizioa izango da.

Tolosako Musika Eskolan egingo da, ekainaren 8an. Bertan eskoletako ordezkariak aurtengo gaiaren inguruan lana egingo dute, udalerrietan egindakoaz arituko dira solasean eta emaitzak bateratuko dituzte. Herrien arteko harremanak sendotzea, elkar ezagutzeta eta Tolosaldearen ikuspuntua izatea dira helburu garrantzitsuenak.



Gogoratzen!! Zer da eskolako agenda 21 lantzea

Eskolako Agenda 21 konpromiso eta ekintza-plan bat da, ikastetxearen eta inguruaren jasangarritasunaren eta kalitatearen alde, hezkuntza komunitateak aurrera eramaten duena. Eskolako Agenda 21ek ikasleei beren ingurumen hurbilaren arazoa aztertu eta ulertzea ahalbidetzen die eta hiritar gisa bidezkoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa izango den gizarte baten alde aritzeko prestatzen ditu, udal kudeaketan partaidetza bultzatuz.

Eta datorren ikasturtean zer?

2011/2012 Ikasturtean BIODIBERTSITATEA izango dugu ardatz nagusi, eta gaiarekin zerikusia duten hainbat aspektu aztertuko ditugu, beti ere ingurumena oinarri hartuz. **ONDO PASA OPORRAK!!!!**

Eskolako Agenda 21

Tolosa 2010/11



Elikadura



Gure baserriarrek paisaiari modu orekatuan eusten diote eta natur ingurunea babesten dute.

Gure mahaian ere islatzen dira herriaren kulturak, ohiturak, paisaia eta klima. Azken urteetako bizimodu berriak eta kanpotik ailegatzen zaizkigun eredu jarraituta, gure elikatzeko ohiturak aldatzen ari gara, osasuntsua den elikaduratik gero eta gehiago urrunduz. Honen ondorioak pixkanaka agerian gelditzen ari dira: loditasuna, bihotzeko gaixotasunak, diabetesa eta abar; eta ez bakarrik osasunean, ingurumenean ere kalteak eragiten ditu.

Elikadura osasuntsuari berriro heldu behar diogu: bertako produktuak eta garaian garaikoak kontsumitzeak mesede handia egingo digu eta gaixotasun askori aurre egiteaz gain, gure paisaia, gure kultura eta nekazaritza mantentzen ere lagunduko dugu.

Amalurrak eskertuko digu!

Tolosako 7 ikastetxeko (Hirukide-Jesuitinak, Hirukide-Eskolapioak, Laskorain, Samaniego, Orixe, Lanbide Eskola eta Paper Eskola) 4.032 haur eta gazteok, Eskolako Agenda 21 programaren bidez ELIKADURA gaia landu dugu.



Ikasleok gaiaren inguruko proposamenak azaldu genizkien udal ordezkariak.

2010-2011 ikasturtearekin zortzigarrenez landu da Eskolako Agenda 21 proiektua herriaren eta laugarrenez eskualdean. Orain arteko esperientzia oso baikorra izan da!

Aurten landutako gaia ELIKADURA izan da eta gaiaren inguruan jorratu diren atalak ingurumenarekin zerikusia duten arazo eta alderdiak izan dira, besteak beste: osasuna, biodibertsitatea, nekazaritza ekologikoa, kontsumoa, bertako produktuak, jakien kalitatea eta jatorria, transgenikoak, ekitate gabezia...



Ikasturtean zehar egindako lanaren emaitzak txosten batean bildu dira



Bertako elikagaiak erostean, bertako baserria eta inguruko ekonomia suspertzen da.



TOLOSA UDALA

TOLOSA 2015



ihobe

tolosakoingurumenzentroa

Dena EA21 proiektuaren helburu nagusiak ahaztu gabe: gazteek Tolosaren etorkizuneko erabakietan demokratikoki parte hartzeko ohiturak hartzen ikastea.

Egindako lana

• **Haur Hezkuntzako** panel baten bitartez fruta eta barazki batzuk identifikatzen ikasi dugu: bertakoak eta garaian garaikoak!

• **Gabonak eta kontsumoa** ekintzan txotxongilo saio baten bitartez, azokak eta herriko denda txikiak erabili behar ditugula ikasi dugu, dastamen-tailerra burutu dugu, bertakoak diren 3 produktu asmatu behar izan ditugu eta, azkenik, eskulan tailerrean, sukaldari-txapela egin dugu plastikozko poltsa bat berrerrabiliz.



Ondo pasatzeaz gain, asko ikasi dugu!

• **Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakook** elikadura osasuntsua eta ariketa fisikoa aztertu ditugu, gure jateko ohiturak, herrian kirola egiteko aukerak...

• **Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakook** herriko dendetan garaiko produktuak identifikatu eta jatorri ezberdinak aztertu ditugu.



Zergatik ekartzen dira kanpotik bertan ditugun produktuak?


• **Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakook** herritarrei galdetegiak egin diegu eta kontsumo ohiturak aztertu ditugu. Nekazaritza ekologikoa zertan datzan aztertu dugu eta herrian produktu ekologikoak erosteko aukerak aztertu ditugu. Baserriak ondare kultural eta paisajistiko bezala duen garrantzia jabetu gara.



Paisaiak gure bizi kalitatean eragin handia du.

• **DBH 1. eta 2. mailakook** "HERRITARTE" GKEn erakusketaren bitartez elikadura subiranotasuna zer den

hobeto ulertu dugu, kontsumo taldeen proiektua aztertu dugu eta baserriaren etorkizunaren inguruan hausnarketa egin dugu.



Elikadura Subiranotasuna gutako bakoitzak zer ekoiztu eta zer kontsumitu erabakitze eta aukeratzeko dugun eskubidea dela ikasi dugu.

• **DBH 3. eta 4. mailakook** transgenikoak zer diren eta zer nolako legedia dagoen aztertu ditugu. Industri nekazaritza eta nekazaritza tradizionalaren arteko desberdintasunak aztertu ditugu.

• **Batxilergokook** baserrian emakumearen paperaren inguruan hausnarketa egin dugu, gosea eta milurteko helburuak eta elikadura eta segurtasuna ere aztertu ditugu.

Herriaren diagnosis egin ondoren, udalbatzarrera eraman ditugu ikasleen foroan adostutako emaitzak eta atera ditugun ondorio nagusiak hauek izan dira:



Ikasle foroa apirilaren 6an egin genuen Tolosako Musika Eskolan.

Lehen Hezkuntza

Elikadura osasuntsua eta ariketa fisikoa:

- Barazki eta fruta gutxiegi jaten dugu, gehiago jan beharko genuke.
- Litxarrerria asko jaten dugu.
- Telebista aurrean denbora gutxiago pasa behar dugu.

Aiton-amonei galdetegiak, atzoko eta gaurko elikatzeko moduak:

- Lehen osasuntsuago jaten zuten eta aukera gutxiago zuten.
- Gaur egun bertako produktu gutxiago jaten dugu.

Garaiko produktuak eta jatorriaren azterketa:

- Ez dugu erreparatzen sasoiko jakiak erosten ditugun edo ez, eta produktu horien jatorria zein den.
- Erosketa gehienak supermerkatu handietan egin ohi ditugu.
- Kanpoko produktuak erostean gehiago kutsatzen dugu.

Tolosako herritarren elikadura ohiturak:

- Gehiengo hemengo produktuak eta garaikoak erosten saiatzen da.
- Nahiz produktu ekologikoak ezagutu, ez dago kontsumituzko ohitura handirik oraindik.
- Gehienek premiazko elikagaiak supermerkatuetan erosten dituzte; denda txikietan ere asko erosten da.
- Elikagai askoren jatorria ezagutzen dute, baina ez denena. Barazkiak zuzenean baserriarrei erosten dizkiete askotan.

Produktu ekologikoak non erosi?:

- Aztertutako 15 dendatatik, 7k produktu ekologikoak saltzen dituzte.
- Produktu ekologikorik saltzen ez dutenek garestiak direla, gutxi daudela eta eskaera gutxi dagoela argudiatzen dute.
- Produktu ekologikoak saltzen dituztenek osasungarriak direlako, kalitatea dutelako eta jendeak eskatzen duelako egiten dute.

Landa eremuko paisaiaren behaketa:

- Baserria desagertzeak produktu naturalak, paisaia ederra, kultura eta lanbide horiek desagertzea dakar.
- Paisaiak gure bizi-kalitatean garrantzi handia du, paisaiak gozatu egiten dugulako, turismoa erakartzen duelako, osasungarria delako eta produktu osasungarriak ematen dizkigulako. Industriad beteko balitz, kutsadura handiagoa izango genuke.

DBH eta Batxilergoa

Baserriaren etorkizuna:

- Geroz eta baserri gutxiago dago. Baserriko bizimodua gogorra da eta etorkizuna oso zaila.
- Lehen gehienak baserri bizi zirenean, baina orain industriarri.

Elikadura subiranotasuna:

- Lehia dago eta bertako elikagaiak galtzen ateratzen dira.
- Hemengo produktuak erosi beharko genituzke. Bertakoei erosi gero, hobeto banatzen da dirua.

Nekazaritza tradizionala eta industrialia:

- Bertako produktuak garestiagoak dira, baina kalitate handikoak, kanpokoak askotan ez dira sasoikoak eta kalitatea ez dute ziurtatuta.
- Tradizionalak ingurunea eta paisaia zaindu egiten ditu; industrialak, berriz, natura suntsitu egiten du: ongarri kimikoak erabiltzen dira; plagen kontra pestizida eta bestelako produktu kimikoak; lurzorua higadura eragiten du; gehiegizko uretaketak bultzatzen du (lurzorua gazituz, akuiferoak agortuz...); erregai fosilen kontsumoa areagotzen du; eta negutegi-efektua eragiten duten gasak askatu.

Elikadura eta transgenikoak:

- Legediak esaten du elikagai baten osagaietako bat %0,9 baino gehiago transgenikoa bada, etiketan argi eta garbi azaldu behar dela.
- Osasunean izan ditzakeen ondorioak ez gaude ziur oraindik. Gizartean nekazaritza tradizionala desagertzen ari da, multinazionalak, bitartean, dirutza irabazten ari dira transgenikoekin. Ingurumenean lurra kaltetu eta kutsatu egiten ditu. Biodibertsitatean produktu bariatate asko dago eta transgeniko bariatate bakarra sortzen dute. Gainera ez dituzte bakarrik beraie lurrak kaltetzen, besteak ere bai.

Elikadura eta segurtasuna:

- Elikagai kontrolak geroz eta zorrotzagoak dira eta etiketan lehen baino informazio gehiago dago. Hala ere, jasotzen dugun informazioa nahi genukeena baino gutxiago da.
- Ez diegu behar beste begiratzen produktuen jatorriari eta kalitateari. Prezioari gehiago erreparatzen diegu, batez ere, krisi garaian.
- Geroz eta kalitate txarreko produktu gehiago kontsumitzen ditugu, adibidez, aurrez prestatutako produktuak, eta kalitate oneko produktuak alde batera utzi ditugu.

Emakumea eta baserria:

- Garai batean, gizonen eta emakumeen lan gogorra egiten zuten. Emakumeek baserrian, sukaldetan eta senarrari laguntzen egiten zuten lan. Gaur egun etxeko lanak banatu eta kalean ere lan egiten dute.
- Gehiago baloratu beharko genuke baserriko lana.

Gosea eta milurteko helburuak:

- Hiri-eremuko okerrago elikatzen dira herri txikietan baino, herrietan produktu natural eta bertako gehiago jaten baitira.
- Gero eta kanpoko produktu gehiago erosten dugu, merkeagoak direlako; horrela, bertako nekazariak baztertzat ditugu kanpoko elikagaiak.

Proposamenak



Baratzean lanean gauza pilo bat ikasten dugu eta gainera etxera eramaten ditugu barazki goxoak.

Hauexek dira Udalari egoera hobetzeko egin dizkiogun proposamenak:

Lehen Hezkuntza

- Herrian baserriko esne ekologikoko makina jarri.
- Auzo guztietan kirol guneak prestatu.
- Udalak dituen lurra baratza landu nahi duten herritarrei eskaintzea, erraztasunak emanez. Eraikin gutxiago egin eta baratzak bultzatu.
- Inguruko hipermerkatuak animatu bertako produktuak saltzera.
- Herriko azoka indartzen jarraitu eta bertako produktuak bultzatu. Hemengo produktuak ezagutzeko eta erosteko aukera izateko, Zerkausia bezalako tokia uzten jarraitu eta azoka bereziak antolatzen jarraitu.
- Baserriarrei laguntza eta erraztasun gehiago eman.
- Sentsibilizazio kanpainak: bizikleta eta oinez ibiltzea bultzatu; produktu ekologikoak dituzten onurak azaltzeko kanpainak antolatu; denda txikietan erostera animatzeko kanpainak antolatu; erosketa gurditxoak erabiltzera bultzatu; herrian elikadura osasuntsuago bati buruzko informazioa zabaldu.

- Baserriak, animaliak, landa eremuak baloratu eta zaindu.
- Herrian azoka ekologikoak antolatu.

Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

- Azokan saltzeko egun bat gehiago eman.
- Azokara saltzera doazen nekazari zergak murriztu edo diru-laguntzak eman.
- Informazio/Sentsibilizazio kanpainak: elikagai transgenikoen inguruan herritarrei informatu (dendariak inplikatu), gosea jasaten duten herrialdeen ingurukoak...
- Herri lurra, industria eremu edo urbanizazio lurra bihurtu ordez, nekazaritzako ustiapenerako zati gehiago utzi.
- Adineko baserriarrei lana errazteko kalean bizi diren pertsonak epe laburrerako kontratatu.
- Kontsumo taldeak: udalak talde horiei biltzeko eta saltzeko lokalak utzi.
- Denda handien kopurua murriztu.

Konpromisoak

Baina ez ditugu eskaerak bakarrik egin, Tolosako ikasleok **Konpromisoak** ere hartu ditugu, ondorengo hauek hain zuzen:

Lehen Hezkuntza

- Kirola egiten jarraitu.
- Baserria eta natura zaindu.
- Astearen behin azokara joateko eskatu gurasoei, animatu.
- Egunero fruta eta barazki gehiago jan, denetatik jan.
- Herriko azoketan bertako eta sasoiko produktuak erosten saiatuko gara, eta supermerkatuan gutxiago.

Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

- Produktu ekologikoak erosi.
- Elikagai transgenikoak ez erosten eta gure sare sozialetan informazioa banatzen saiatuko gara.
- Bidezko merkataritzako produktuak kontsumitu.
- Baserriaren produktuak erosi.
- Abegi, Gurutze Gorria, Cáritas eta antzeko elkarten lana gehiago ezagutzeko ahalegina egin.